

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA, 2023KO ABENDUA

Orain dela lau urte, 2019ko ekitaldiaren amaieran, Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzeko proposamena adostu genuen Elhuyar enpresarekin elkarlanean. Plan horrek bat egiten du denboran Eusko Jaurlaritzaren 6. Plangintzaldirako Normalizazio Planarekin (2018-2022 aldia).

Elhuyar Aholkularitzarekiko elkarlana 2019-2023 urteen bitartekoa zen, gure Plan Estrategikoa garatzekoa, eta, beti esan dugun moduan, guztiz positiboa, aberasgarria eta emankorra izan da hartu-eman. Baina oraindik ere urrats berriak daude emateko, eta jada hitzartu dugu datorren urtean Plan Estrategiko horren luzapenari ekingo diogula, egiteke ditugun asmoak gauzatzeko.

Izan ere, 2023 urterako zehaztutako kudeaketa-planean hainbat helburu jarri ziren, eta horietako asko bete badira ere, beste batzuk guztiz betetzeke geratu dira, eta, hainbat arrazoi direla eta (denbora-falta, kasu gehienetan), batzuk atzeratu egin dira.

Urtean zehar 9 aldiz batu da Lan Harremanen Kontseiluaren Euskara Batzordea, eta denetan presente egon da Elhuyarreko ordezkaria (Maite Unzalu), batzordekide diren LHK-ko langileekin batera: Yolanda Zarandona, Idazkari nagusia; Nerea Elguezabal, Administrazio-arloko burua; Bego Pérez, administraria; Asier Aldaiturriaga, lan-harremanetako teknikaria; eta Josu Arroyo, hizkuntza-normalkuntzako teknikaria.

Euskara Batzordeari lotuta, 2024 urterako aldakuntzak daude aurreikusita. Gure beste egoitzetako lankideek ere parte har dezaten nahi dugu, egiten den guztiaren parte senti daitezen, eta printzipioz asmoa da Yolanda Blanco Arabako lurralde-arduradunak batzordearen bileretan parte hartu dezan.

Urtearen amaierako balantzea positiboa da, egindako lanak ondorio positiboak dituela dituela ikusten ari baikara.

2023KO EKITALDIKO MUGARRIAK

ZERBITZU HIZKUNTZA

Errotulazioa

- *Errotulazioaren ikuskapena egin da.*

Jendaurreko ekitaldiak

- *Presidentearen urteroko prentsaurrekoa, aurreko ekitaldiaren balantzea egitekoa (uztailaren 13an egin da, Bilboko egoitzan).*

- Tomás Arrieta presidentek aurkezpenaren hasiera eta amaiera euskaraz egin du (gainerakoa gaztelaniaz), eta Tomásék bere azalpena behin amaituta, negoziazio kolektiboko teknikari Josune Bengoetxeak aurkezpen guztiaren laburpena egin du euskaraz.

Informazioa gaztelaniaz proiektatu da, eta amaieran kazetariei dokumentazioa ele bitan eman zaie.

Komunikabideetan presentzia izan dugu (EITBn, euskaraz eta gaztelaniaz).

Hurrengo agerraldiei begira, berdín jokatzea da asmoa.

ZERBITZU HIZKUNTZA ETA LAN HIZKUNTZA

Neurketa

- Azaroan *aurrez aurreko eta telefono bidezko harreraren neurketa* egin da.

- Aurrez egin diren neurketekin alderatuta, ez da aldaketa handirik sumatu (euskara gutxien, Araban).

Aurrerantzean ere *aurrez aurreko eta telefono bidezko harreraren* euskarak duen presentzia neurtuko da (urtean behin bai, behintzat).

- Urte osoan zehar *aplikatzeko hitzarmenari buruzko kontsuluten neurketa* egin da (eskaera nola etorri den, eta nola erantzun zaion).

- Aurreko urteetako egoera berean jarraitzen dugu. Mezu gehientsuenak gaztelaniaz datoz, eta horiei ele bitan erantzuten zaie.

Euskara hutsean datozenei soilik euskaraz erantzuten zaie.

Datorren urtean kontsultetan erabiltzen den hizkuntza aztertzen jarraituko dugu, eta, berritasun moduan, kontsultagileari bidaltzen zaion azken e-mailaren gaia (“asunto”) neurri batean euskaratu egingo dugu.

- *Langile batek (zuzendaritza barne) lantaldeari edo lantokiko talde jak**i** bati bidalitako idatzizko mezu orokorren neurketa* egin da urte osoan.

- Ele bitan idatzitakoek gora egin dute, eta euskara hutsekoak jaitsi egin dira zertxobait. Langile batzuen konpromisoa ezinbestekoa da gai honetan.

LAN HIZKUNTZA

Neurketa

- Bileretako euskararen erabilera neurtzen hasi gara, baina ekimenak ez du arrakastarik izan.

Formakuntza

Euskara Planari lotua

- Maiatzaren 18an *Hizkuntza inklusiboari* buruzko formakuntza-saioa egin da (saio teoriko-praktikoa). Elixabet Etxabeguren Elhuyarreko berdintasun-teknikaria izan da hizlari, eta LHK-ko langile askok hartu dute parte.

Dena euskaraz egin da.

Orokorra

- Formakuntzaren gaia: “Aplicación práctica de la valoración de puestos de trabajo, registro retributivo y auditoría retributiva”.

Gaztelaniaz izan da dena (galiziar hizlaria): sei saio orotara, urriaren 11 eta azaroaren 22a bitartean.

Euskara Batzordea

- Aurten, orotara, 9 bilera egin ditu Euskara Batzordeak. Datorren urtean Yolanda Blanco sartuko da Batzordean, Bego Pérez-en ordez. Azken honek egin zuen eskaera, eta batzordeak onartu egin dio.

BAGABILTZA buletina

- BAGABILTZA izeneko buletinaren lau zenbaki argitaratu dira 2023an: lehenengoa otsailean, bigarrena maiatzean, hirugarrena urrian eta laugarrena abenduan.

Euskara Saioak

- Lan Harremanen Kontseiluan EUSKARA SAIOAK izeneko ekitaldi bereziak antolatzea izan da berriro ere Kudeaketa Planaren helburuetako bat, eta guztira hiru egin dira 2023an, hirurak ere Bilboko egoitzan: apirilean, urrian eta abenduan.

Saio hauek baliatu ditugu Euskara Planaren baitako ekimenen balorazioa egiteko, formakuntza-saioetan ikusitakoak praktikan jartzeko, BIKAIN ziurtagiriaren ingurukoak ulertzen joateko, etab. Baina euren alde informala ere izan dute saiook, tartean izan baitira lehiaketak, jolasak...

Argazki Lehiaketa

- Argazki Lehiaketa antolatu da 2023an. Kontseiluko langileek udako hiruna argazki aurkez zitzaketen gehienez. Guztira, 14 langilek hartu dugu parte. Urrian ekitaldi berezia egin da, langile guztien (partaide zein ez) bozkak jaso ostean irabazlea nor izan den erabakitzeke (bi irabazle egon dira).

2024KO EKITALDIRAKO HELBURUAK

- Plan Estrategikoaren luzapena egitea
(denon artean)
- Urtean zehar artikuluren bat sortzea euskaraz
(Zerbitzu Hizkuntza)
- Neurketekin jarraitzea
(Zerbitzu eta Lan Hizkuntza)
- Euskara Saioak antolatzen jarraitzea
(Lan Hizkuntza)
- Bileretako euskararen erabilera neurtzea
(Zerbitzu eta Lan Hizkuntza)
- Mintza kafeak egitea
(Lan Hizkuntza)
- Hilean behin Euskara Batzordeko bilerak egiten jarraitzea
(Lan Hizkuntza)
- BIKAIN ziurtagiriari begira jartzea
(Zerbitzu eta Lan Hizkuntza)